



KULTURA ETA ARTEA ERDI AROAN (5. zatia)

Gutxienez 6,5 atera behar duzu gainditzeko ariketa hau

abside	ertz-gangak	gurutze latindarrekoa	kanoi-gangak	Ohol-pintura
arbotanteak	eskematikoak	gurutze-ganga	kontrahormak	ojiba-arkua
arrosa-leihoa	eskultura bakartua	harria	kontrahormak	pantokratorra
erdi-puntuko arkuak	freskoa	harria	kristautasuna	Sentimenduak
Errealismoa	girola	hierarkizatuta	Miniaturak	sinbolismoa
erretratua	Gotikoak	hieratikoak	mugimendua	transeptua
erromanikoa	gurutze latindarra	Hondoko paisaiak	Naturalismoa	

HUTSUNEAK BETETZEKO ERABILIKO BEHARKO DUZU GOIKO TAULAN DAUDEN KONTZEPTUAK

Erdi Aroko artea

X. mendearen amaieratik XV. mendera, Mendebaldeko Europan Frantzian sortutako bi arte-estilo zabaldu ziren: arte erromanikoa (XI. eta XII. mendeetan) eta arte gotikoa (XII. mendearen amaieratik aurrera). Nazioarteko estiloak izan ziren, lurralde guztietan baitzituzten ezaugarri komunak. Bi arte-estilo horiek ezaugarri komun bat zuten: (1)..... Artelanen helburu nagusia fededunak Jainkoagana hurbiltzea zen, Erdi Aroan fededun gehienek ez baitzekiten ez irakurtzen eta ez idazten; horregatik, testu sakratuak elizetan erliebe eta margolanen bidez irudikatzen hasi ziren.

Cluny ordenako beneditarrek estilo (2)..... erabili zuten beren monasterioetan. Monasterioak leku isolatuetan eraikitzen ziren, komunitateko kideak Jainkoagana hurbiltzeko. Erromesbideetan ere eraikin ugari altxatu ziren, batez ere Erromara eta Santiago de Compostelara zihoazen bideetan(3)..... , aldiz, izaera hiritar nabarmena izan zuen, XII. mendetik aurrerako hirien hazkundeak bultzatuta, estilo hartan eraiki baitziren merkatarientzako lonjak, udaletxeak, jauregiak, katedralak, eta unibertsitateak.



Arte erromanikoa

Arkitektura erromanikoa

- Eraikin nagusiak: elizak, katedralak eta monasterioak.
- Eraikitze materiala: (4).....
- Oso horma lodiak zituzten, leiho gutxirekin. Kanpoan (5)..... jartzen zizkieten. Oso eraikin sendo eta trinkoak ziren, eta argi natural gutxi zuten.
- Egiturari eusteko, (6)..... eta zutabe eta pilare handiak zituzten.
- Estalkiak: erromatarren teknikak berreskuratu zituzten eraikinak arintzeko: (7)..... (nabe nagusietan), (8)..... (alboko nabeetan) eta kupulak.
- Oinplanoa: (9)..... Jesus hil zen gurutzea gogorarazteko. Gurutzeko beso luzea nabe batez edo batzuez osatuta egon zitekeen, eta (10)..... batean amaitzen zen. Beso motzak (11)(.....) ere hainbat nabe izan zitzakeen. Erromesbideetako elizei (12)..... erantsi zieten, absidearen inguratzen zuen korridore bat.

Eskultura erromanikoa:

- Funtzioa: didaktikoa eta erlijiosoa, fidelei Eskritura Santuen mezua helarazteko.
- Arkitekturara moldatzen zen: irudiak luzatu, moztu edo bihurritu egiten ziren, bete behar zuten espaziora egokitzeko (kapitel edo tinpanoetara, adibidez).
- Giza irudiak (13)..... eta (14)..... ziren: naturaltasunik gabe eta (15)..... ageri ziren (garrantzitsuenak handiago egiten zituzten). Jarrera zurrunetan irudikatzen zituzten, gorputza ia osorik estaltzen zuten jantziekin.
- Adierazkortasuna eta (16)....., funtzio didaktikoa betetzeko.
- Polikromia, denboraren poderioz gehienek kolorea galdu badute ere.



Pintura erromanikoa:

- Funtzioa: didaktikoa eta erlijiosoa.
- Arkitekturara moldatzen zen: horma eta kupuletan egiten ziren margolanak.
- Teknika: (17).....
- Gaiak: erlijiosoa. Jainkoa gogorra eta zorrotza zen. Motiborik ohikoenak: (18)....., tetramorfoaz inguratuta, eta Ama Birjina Haurra altzoan duela.
- Irudiak: eskematikoak eta lauak, jarrera zurrunetan eta aurpegiera gogorarekin. Pertsonaiak hierarkizatuta (garrantzitsuenak handiagoak egiten zituzten).
- Koloreak: biziak, adierazkortasuna emateko.
- Figuren ingerada lerro beltz lodi batez azpimarratuta; begiak eta eskuak nabarmenduta.
- Hondoko paisaiarik gabe, mezua baitzen garrantzitsua.

Arte gotikoa

Arkitektura gotikoa. Ezaugarri orokorrak:

- Eraikitze materiala: (19).....
- Irtenbide tekniko berritzaileak elizak handiagoak, garaiagoak eta lirainagoak izan zitezten: (20)..... eta (21)..... (zubi baten modura, gangaren bultzada kontrahormei igortzen zieten) jartzen zituzten egitura sendotzeko.
- Horma arinagoak, beiratez apaindutako leiho gehiagorekin ((22).....)
- Egiturari eusteko (23)..... edo arku zorrotza erabiltzen zen.
- Estalkiak: (24)..... (gurutzatutako bi ojiba-arku). Gangen pisuari ez zioten hormek eusten, barruko pilareek baizik.
- Oinplanoa: (25)....., baina burualde poligonalarekin, zirkuluerdi forma-koa izan beharrean. Nabe nagusia albokoak baino zabalagoa eta garaiagoa.



Eskultura gotikoa. Ezaugarri orokorrak:

- (26)..... : ezaugarriarik azpimarragarriena. Errealitate-sentsazioa transmi-titzeko, xehetasun gehiago irudikatzen ziren.
- Polikromia: eskulturei errealismo handiagoa emateko.
- Lerro kurbatuak, figurei (27)..... emateko.
- Gaiak: erlijiosoak. Kristo gurutziltzatua (Jainko atseginagoa, pairamena adierazten duena) eta Ama Birjina Haurrarekin. Funtzio didaktikoa zuten.
- Eskulturak ez ziren beti arkitekturara moldatzen: (28)..... sortu zen. Hilobiak, erretaulak eta aulkiteriak lantzen ziren.

Pintura gotikoa. Ezaugarri orokorrak:

- (29)..... , liburuak eta katedraletako beirateak apaintzeko.
- (30)..... bakartuak garrantzia hartu zuen, eta horren atzetik margotutako erretaulak etorri ziren.
- Gaiak: erlijiosoak, baina (31)..... ere garatu zen, nobleek eta burgesek enkar-gatzen zituzten, haien boterea erakusteko eta etorkizunean gogoratu zitzaizen.
- (32)..... eta mugimendua bilatzen zuten. Zurruntasuna galdu zuten.
- Koloreen aberastasuna eta urre-kolorearen erabilera.
- (33)..... sartu ziren.
- (34)..... adierazten zituzten.